

GAZTE SORTZAILEAK

Montauk “Geruzak” 360º

Eguna: 2018-12-23

Tokia: Aldabe gizarte etxeko antzokia

Ordua: 21:00

Sortzailea: Montauk taldea (Beñat Goitia, Aitor Garcia De Vicuña, Gorka Etxebarria eta Urko Urzelai)

2018ko ekainean grabatu zuen Montauk taldeak “Geruzak” izeneko bigarren lana, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan Sagasound-en gidaritzapean. Estudioko lan horren zuzeneko emanaldia da Gazte Sortzaileak bekaren bitartez argitara eman dutena.

Eszenifikazio berritu baten bitartez eskainitako musika emanaldia izan da. Oihaneder euskararen etxean aurkeztu zuten zuzenean 360 graduko emanaldian. Elkarri begira, zirkuluan ikusleari ikuspegi berria eskainiz. Formatua izan da emanaldi honen berritasun nagusia, baliabide teknikoak horri eskaini zaizkio, ikusleari zuzeneko kontzertu bat ikusteko perspektiba berri baten eskaintzari.

“Geruzak” ibilbidearen jendaurreko aurkezpena gauzatu da dagoeneko eta orain hedatze prozesuan dago Euskal Herrian zehar.

“Oskola”

Eguna: 2019-03-22

Tokia: Oihaneder Euskararen Etxeko Ortuño gela

Ordua: 20:30

Sortzailea: Urko Saenz de Buruaga Gonzalez

'Oskola' musika saio bat da. Interneten bidez zabalduko da, formatu digitalaren potentziala eta baliabideak esplotatzeko asmoz. Horretarako YouTubeen musika-kanal berri bat sortuko da.

Gaur egun dagoen hutsunea betetzeko helburuarekin jaio da, horrelako programarik ez baita existitzen, ez telebistan ez beste formatuetan ere.

Saioaren ildo nagusia suspertzen ari diren taldeen elkarrizketak eta zuzeneko emanaldiak dira. Saio bakoitzean talde bana da protagonista, eta bi ataletan banatuta dago. Lehenengo, elkarrizketa bat egin zaio talde edo bakarlariari. Ondoren, talde edo bakarlariak bizpahiru kanta jo ditu eta zuzenean grabatu ditugu.

Teknikoki, ahalegin handia egin da atal honetan, bai soinua, bai irudia kalitate gorenekoak izan daitezen.

“Tripak: huts bete hots”

Eguna: 2019-04-04

Tokia: Oihaneder Euskararen Etxea

Ordua: 20:30

Sortzailea: Eguzki Donnellan Armengod eta Haizea Beruete Lopetegi

Proposamen artistikoak hainbat arte diziplina jaso nahi ditu; hala nola, arte plastikoa eszenografia gisara, literatura –poesia, hein handienez- errezitatua, eta errezitaldia eszenara eramaten duen gorputz adierazpena.

Ikuskizuna josten duen gaiari dagokionez, honela labur liteke: Non zeharkatzen dute elkar subjektiboak eta politikoak? Non norbere tripek eta kolektiboaren sareek?

Sortzaileek diotenez, "Biak ere, gazte gara, honelako sormen prozesuetan. Jaioberriaren jakin-min hori nahiko genuke aprobetxatu, aukera berriak esperimentatu eta sakonerari bideak irekitzeko". Sorkuntza prozesuan, Itziar Rekalde Luzarraga izan dute gidari.

"Inkuren itzala"

Itzalak, titereak eta ahozotasuna elkartzen dituen ikuskizuna.

Eguna: 2019-04-11

Tokia: Aldabe gizarte etxeko antzokia

Ordua: 18:30

Sortzailea: Eñaut Gorbea Lopezde Uralde

Ezberdina izatea altxorra bada, gauzak ezberdin egiteak konponbideak badakartza, Aioko uharteko biztanleak ez dira honetaz jabetzen. Ezberdin izateagatik ingurukoek baztertu dituzten bi haur izango ditugu protagonista eta hauen bitartez ezagutuko ditugu giza komunitatearen komunikazio eta zaintza arazoak, hondamendiak, jeinuak, munstroak eta bidaia fantastikoak.

Ahozotasuna eta iruditegia erabili ditut baliabide eszenikoaren oinarri gisa. Honez gain, itzalak eta argia lagungari izango ditut ekimena oholtzaratzek garaian.

Nik dakidala, itzal titereen tradizioak ez du historikki gure herrialdean garrantzi handirik izan, baina kontuan hartuta munduko estruktura eszeniko eta audiobisualen aintzindaria dela bere erabilera eta difuzioa aberasgarria da.

"Zer hartu ontzitik itsasoa harri bihurtzen bada" emanaldi multidiziplinarra: komikigintza eta musika uztartuko dituen ikuskizunaren taularatzea

Eguna: 2019-05-18

Tokia: Aldabe gizarte etxeko antzokia

Ordua: 18:00

Sortzaileak: Miren Narvaiza Martiartu eta Josea Baleztina Rudi

Proiektu honek komikigintza eta musika uztartu nahi ditu, irudia eta soinua elkarrekin harremanean jarriko dituen ikuskizuna atontzeko. "Aingurak" izeneko komikia da abiapuntua eta berari bizitza berri bat ematean datza espreski sortu den soinu banda orijinal baten bidez egingo den taularatzearekin.

Behin soinu banda idatzita, komikiko irudiak musikaren erritmora egokitzea izan da hurrengoa. Hain zuzen, proiektu honen helburua komikia eta musika uztartuz, zinemaren lengoaiara hurbiltzea da.

Ikuskizuna borobiltzeko zuzeneko marrazketa saio bat egingen da eta musikariek inprobisatu egingo dute marrazkiak bizia hartu ahala, horiek iradokitzen diena instrumentuez baliatuta adieraziz. Horrela, ikusleei komikien sorkuntza prozesuaren lagin txiki bat eskainiko zaie eta bat-bateko sortze prozesura hurbilketa bat.

Bistan denez, honek denak adin guztietarako egokia den ikuskizun bat izatea ahalbidetzen du, ikus-entzunezkoak oinarrian dituen.